

Jaki Elkano

Marko Armspach

# Ana eta gakotsak





**Ana eta gakotsak**

Testua: Jaki Elkano,  
Jean-Louis Davant euskaltzainaren gainbegiradarekin  
Marrazkiak: Marko Armspach  
Argitalpena: Unai Zubeldia

© 2017, IKAS pedagogia zerbitzua.  
Argitalpen arduraduna: Aines Dufau  
Legezko arduraduna: Maite Erdozaintzi-Etxart

inprimatua, 2017ko martxoan

# Ana eta gakotsak



marko  
spatola

Ana aspertzen da bere ganberan bakarrik. Eri da eta ez da ateratzen ahal. Zer egin?

**Irakurtzen ez daki!**

Leihoari begira egoten da, ametsetan. Hodeiak itxuraz aldatzen ikustea maite du;  
horretan denbora anitz iragaten du.



marko  
spatola



Hodei bati artoski begiratzean, ohartzen da gero eta hurbilago zaiola.

Zein bitxia den! Zaldi baten itxura du! Zaldi hegalaria da!

Anak leihoa zabalik utzi du eta... ganberan sartzen zaio!

- Egun on, Ana! Triste ikusten zaitut eta laguntzera heldu natzaizu.
- Nor zaitut? Eta nola lagunduko nauzu? Aspertzen naiz ganberan, ez dakit zer egin!
- Mendi kaskoan bada ipuinen kutxa; hara eramaneen zaitut bizkarrean.
- Ezin da! Irakurtzen ez dakit! –dio Anak, burua apal, erdi negarrez.
- Ez axola, Ana! Ipuinen kutxa irekitzeko eta ipuin guziak irakurri ahal izateko, gakotsak aurkituko ditugu. Gehienak oihanean gordetzen dira.

Ana alaitzen da; argitxo bat piztu zaio begietan.

- Elkarrekin joaten ahalko gara beraz?
- Bistan dena! Eta sorpresa bat badut zuretzat; ni naiz lehen gakotsa: **zaldi aztia**.



marko spatola

Ana zaldi aztiaren bizkarrera igaten da eta biak oihanera buruz abiatzen dira. Zeruan hegaldaka doaz. Oihan beltz eta trinkoa dute azpian.

- Ana, hor dira gakotsak. Baina kasu! Oihanean bizi da basajauna, erraldoia eta beldurgarria da, batzuetan ergela ere! Ez du nahi nehor sar dadin liburuen munduan, kutxa irekitzean, ipuinen argiak hain maite dituen bazter ilun guziak desagerraraziko bailituzke. Horregatik gakotsak bahitu nahi ditu.
- Oihan ilun hori ikaragarria da! Nola egingen dugu?
- Adiskide dudan beste gakots bat eskainiko dizut: **xaramela**.

Begi kliska batez, zaldi aztiak tutu luzexka baten itxurako gakotsa agerrarazten du.

- Hara! –dio Anak–. Zer da hori, musika tresna bat?
- Bai, xaramela magikoa da. Jotzen duzularik, «a, e, i, o, u» hotsak entzuten dira eta gordeak diren gakotsak ateratzen dira!
- Milesker, zaldi aztia! Eta orain, goazen!

Memento horretan, Anak harrabots ttipi bat entzuten du, gainerik zirimolaka heldu: «tx, tx, tx...»

Gelditzen da:

- Begira, aztia! **Tximeleta** da! Zein polita den! Marrazki koloretsuak baditu hegaletan eta itzulika ari da. Iduri du zerbait erran nahi digula. Gurekin etorri nahi du.
- Hara! **Mariorratza** hurbildu zaio jostatzerara! Bihurriak iduri dute biek! Bide guzian segituko gaituzte, haien beharra ukanen baitugu.
- Gure lagunak dira beraz!

Eta ziztu bizian oihanera buruz abiatzen dira.



Marko Spatola

Oihan beltzean lurreratu bezain laster, aztiak dio:

- Ondoko gakotsak hemen izan behar luke, baina usaiako zuhaitza lurrean da...
- Basajaunak badaki hemen garela eta zuhaitza bota du gakotsa aurki ez dezagun!

Beharrik Anak xaramela magikoa baduela. Ateratzen du eta hartan ufatzen: «a, e, i, o, u, u u u...», eta **kukua** ateratzen da!

- Hor naiz! –erraten du kukuak, eta Anaren sorbaldan plantatzen da.



marko  
spatola

Ana pozik dago. Hiru gakots baditu eta oihaneko basajauna arrunt zozoa dela iduri zaio.  
Gainera, aztiak erran dio ondoko gakotsa non-nahi gordetzen dela.

– Non da, non da? –galdegiten dio Anak, harroturik.

– Mendan, zeruan, udazkeneko oihanean, zure izenean ere! Jo ezazu xaramela, eta jinen da!

Orduan, «a, a, ai» entzutean, **gaztaina** jauzika heldu zaio eskura.



marko spatola



Ana, lorietan, kantuz eta xaramela joz dabil. Aztia haren ondoan jauzika ari da.

Musikaz lagundurik, dantzan heltzen dira oihanaren erdiko pentze batera. Pentzea lorez betea da, eta «i» hotsa xaramelatik ateratzen delarik, **lili** gakotsa agertzen da Anaren oinen artean.

– Egun on, Ana, hor nauzu, zuekin heldu naiz!

Ana oihaneko basajaunaz trufatzen da.

– Horra jadaneko bosgarren gakotsa, eta basajaunaren hatzik ere ez da ageri. Desagertu zaigu, aztia! Ez da zuk erraten zenuen bezain beldurgarria!

– Ez zaitezela fida, Ana, gaiztakeria zenbait prestatu duke, gu oihanetik haizatzeko.

Anak ez dio aztiari kasu handirik egiten. Irria ezpainetan, tropa ttipiaren gidari jartzen da eta «goazen!» erranez, denak abiarazten ditu.



Baina doi-doia lehen urratsak egin orduko, bat-batean zerua goibeltzen da; hodei itsusi batzuek iluntzen dute. Ekaitz bat, gaitza, altxatzen da. Ortzantzak eta tximistek, burrunba ikaragarri batean zeru guzia urratzen dute, instant batez oihana argituz.

Orduan ingumak ateratzen dira.

Ana zur eta lur gelditzen da. Aztiak haritz baten azpira bultzatzen du eta han egoten dira kukuturik, higitu gabe. Ana dardaraka ari da beldurraren beldurrez.

– Aztia, aztia, nor dira? –dio ahapetik.

– Ixo, Ana! Ez zaitzela mugi. Gaueko ingumak dira.

Basajauna mintzo zaie:

– Ana horrek bost gakots aurkitu ditu jadanik. Aski da! –dio basajaunak–, ez du bat gehiago eskuratu behar! «m» guziak preso emanen ditugu. Zu, zoaz oihaneko mamuaren xerka; zu, mendiaren xerka, eta nik mundu osoa preso ezarriko dut! Ha! Ha! Ha!

Eta berehala basajauna eta ingumak desagertzen dira.



marko spatola

Zaldi aztiak belarri luzeak ditu eta arranguraturik, Anarengana itzultzen da.

- Ana, goazen laster, basajaunak eta ingumek «m» hotsak preso ezarri dituzte eta han da gure ondoko gakotsa ere!

Ana igaten da aztiaren bizkarrera, eta biak airatzen dira. Gain-gainetik, zuhaitzen artean presondegia agertu zaie. Ate aitzinean pausatzen dira. Zaldi aztia, gibelka hurbiltzen da eta *danba!* putar izigarri batez atea lurrera botatzen du. Orduan Anak, zainetan, «a» eta «u» jotzen ditu xaramelaz, eta berehala, **mamua** ateratzen da. Harekin batera mundua eta mendia.

- Zatoz, mamua, tokiak hustu behar ditugu segidan!



Basajauna, errabiatuak, Anaren gibeletik abiatzen da oihuka. Ana zalu-zalu zaldira igaten da eta ieup! biak airatzen dira, gakotsak bizkarreko oihal batean emanaz.

Orduan zerua argitzen da eta emeki-emeki Ana lasaitzen da.

– Ufa! Doi-doia kausitu dugu eskapatzea!

Oihanean basajaunak oihuka segitzen du.

– Begira, Ana, baratze horretan tomate gorri eta urtsuak badira! Hor aurkituko dugu **tomate** gakotsa! Tipulak ere badira, jukutria bat eginen diogu basajaunari!

Jausten dira; Anak esku ahurrean tomate gakotsa biltzen du eta muxu bat ematen dio. Artean aztia tipulen zuritzen hasten da.

– Jendeak basajaunarentzat janari eskaintzak uzten ditu oihan hegian, baina honek tipularik ez du jasaten. Ontzi horietan tipula xehatua ezarriko dugu eta... sekulako tripako mina bilduko du! Istant bateko bakea dugu!






Aztia eta Ana erreka bazterrean lurreratzen dira, oihaneko basajauna, tripako minak makurturik zinkurinka ari delarik.

– Ana, pausatuko gara, bakean utziko gaituzte orain.

– Zer toki xoragarria! Xaramela jotzen baldin badut, beharbada gakots kukutu bat agertuko zait!

Anak «a, e, i, o, u» jotzen du, eta «uuu, aaa!», eta **ura** agertzen zaio, xortaka.

– Ura naiz, zuekin heldu naiz! Haurride anitz badut: burua, zerua, txoria, kadirra, bai eta kusiak ere. Ene kusi guziak erlastuak dira; negua hurbiltzen delarik hozten dira eta zintzurreko minez daude; **lertsuna** horietako bat da. Ori! Heldu da gurekin ibilaldiaren egitera.



marko spatola

– Begira, aztia, zenbat arrain errekan! Ur gakotsaren antzekoak dira baina biritxiak badituzte. Anak xaramela jotzen du eta **arrain** ttipi batek jauzi egiten du ur gakotsaren barnera.

Bere gakotsez inguratua da.

– Laster ipuinen kutxa irekitzen ahalko dugu! Berantetsia dut!

– Zaude, zaude, Ana! Oihaneko basajaunak ez baldin badigu beste gaiztakeria bat egiten.

Ez dugu fidatu behar.



marko spatola

Alabaina, sabeleko mina eztitu eta, Tartaro harpeetako lagunarengana joatea erabaki du basajaunak. Tartaro gaixtoa da. Animaliak bizirik jaten ditu, eta harrapatzen dituen haurrak ere irensten ditu osorik! Basajauna harpean sartzen da.

– Tartaroooo! Ana ttipi hori gakotsen biltzen ari da, ipuinen kutxaren irekitzeko!

Ez baldin badugu geldiarazten, gure oihan eta harpe ilunak argituko dira eta hilko gara! Tartaro iratzartzen da eta aharrausika ari izan ondoan, ihardesten dio bere ahots ozen eta ikaragarriaz:

– Ez, ez dugu utziko, ezta pentsatu ere! Nik ardi guziak harpera eramane ditut eta janen!

Ha! Ha! Ha! Zer apairu ona! Horietan gakots bat baditake!

– Eta nik, baserriko behiak oihanera erakarriko ditut eta niretzat atxikiko! Behi gakotsa esku ahurrean! Ha! Ha! Ha!



Aztia eta Ana zuhaitz baten gibelean gordeak dira. Dena entzun dute. Ana goibel dago. Arranguratzen da. Badaki artaldean eta behi taldean bi gakots badirela.

– Aztia! Irensten baldin badituzte, nola egingen dugu ipuinen kutxaren irekitzeko? Ezinezkoa izanen da!

Anari malkoak begietara heldu zaizkio.

– Lasai, Ana, ez ahantz xaramela baduzula! Eta nik, laguntzeko kantu bikaina badut. Prest, Ana?

Orduan xaramela entzun bezain laster, aztia kantuz hasten da:

– Bolon bat, bolon bi  
Anak xaramela jotzen dio  
baserriko behiari.  
Bolon bat, bolon bi  
ardi zuria belardian da,  
bazkatzen buru belarri.  
Betoz orain maldan beheiti  
behi eta ardi hori!

Memento berean, indar misteriotsu batek **ardi** eta **behi** gakotsak erakartzen ditu.

Biak taldean sartzen dira.



PP  
PPP  
PPPP  
PP  
PP  
PP

marko spatola



Tartaro eta basajauna ez dira ohartu gakotsak desagertu direla.

– Ha! Ha! Nola engainatu ditugun! –dio Anak.

– Hobe dugu berehala ihes egitea; oihanetik kanpo ez gaituzte segituko.

Anak hesten du gakotsen oihala eta airatzen dira. Oihana gibelean uzten dute eta mendira buruz doaz.

– Begira, begira, aztia! Pitikak jauzika mendian! Pottokak ere badira! Jauts, jauts, aztia!

Anak jotzen du «a, e, i, o, u, iiii» eta **pitika** gakotsa heldu zaio. Ipuinen kutxa gero eta hurbilago dela iduri zaio, ez baitaki basati batek mendiko bidea zaintzen duela...



Marko  
Patola

Hain zuzen, mendi kaskora doan bidearen erdian dago herensugearen egoitza. Herensugea izigarri bortitza da. Bidea trabatzen du. Edonork ipuinen kutxara hurbildu nahi baldin badu, garrasi ikaragarri batez, hodeietarainoko sua botatzen du. Ana beldurrez dardaraka ari da. Bat-batean aztia inarrosia da, zangoz gora erortzen da. Sugarrek hunkitu dute. Biek ihes egiten dute arroka baten gibelean gerizatu arte.



marko  
spatola

– Herensugearen menderatzeko, suge ttipiaren laguntza galdegin behar dugu! –dio aztiak–. Sasietan gordetzen da, eta haren pozoiak herensugea hil dezake. «U» doinua atera ezazu, Ana, zalu! Jinen da!

– «A, e, i, o, uuuuuuu!» Hor da! **Suge** gakotsa da!

Suge ttipiak berehala ulertu du. Ziztu bizian badoa, herensugearen aztaparra ausikitzen du eta gakotsen taldean sartzen da. Ber mementoan, herensugea, orro batez, lurrera erortzen da, hilik.



marko spatola

Bat-batean, mendi kaskoaren puntan, ipuinen kutxa agertzen da.

– Ipuinen kutxa hor da! –oihukatzen du Anak, liluraturik–. Baina zer gertatzen da?

Gero eta gutiago ikusten dut! Kutxa desagertzen ari da!

– Gaua heldu da, Ana, besterik ez; eguzkia desagertzen ari da eta emeki-emeki iluntzen du.

Laster ilargiak argituko gaitu.

– Zerbait hurbiltzen ari zaigu, beldur naiz!

– Gatuak dira, ilargi betean; hemen biltzen dira, borobilean. Ez axola, gure lagunak dira!

Xaramelaz «a» jo ezazu, **gatu** gakotsa jinen zaizu goxoki!

Gatuak jauzi egiten du eta Anaren lepo itzulian ematen da, goxo-goxoa.

Gorputza lasaitzen eta berotzen dio.



marko  
spalola



Aztia eta Ana biziki akituak dira. Gauaren pasatzeko, ur turrustaren ondoan etzaten dira, lo egin nahian. Hainbeste abenturaren ondotik, loaldi on bat merezitua dute! Baina lokartzekotan direlarik, bazterrak arras nahasiak sumatzen dituzte.

– Zer da oraino? Entzuten duzu, aztia? –galdegiten du Anak, asperturik.

– Lasai, Ana! Laminak dira. Gauaz ateratzen dira. Ez dira gaixtoak, baina beti mugitu behar dute: jauzika, joan-jinka, beti ari, jo, jan, jaiki, jarri, jostatu!

– Aztia! Inguratzen gaituzte!

– Ez digute minik eginen. Jateko zerbait ematen baldin badiegu, segur naiz gakots bat utziko digutela.

Orduan aztiak begi kliska batez ogi opil meta handi bat agerrarazten du. Anak opilak barreiatzen ditu, eta kezkek arindurik, berehala lokartzen da.



Biharamunean, iratzartzen direlarik, gakotsen taldean sekulako mugimendua da: gora edo ahapetik elekatzen dira, jauzika ari dira, pusaka... zer giro nahasia gakotsen artean!

– Zer gertatzen da?

– Lamina batek **jauzi** gakotsa utzi du eta bazter guziak inarrosi ditu. Gainera, harrabotsak **alfabeto** gakotsa erakarri du, eta honek taldean sartzeko gogoia du. Baina familia ez baita arras osatua, erabaki dute oraino beha egon behar duela.

Alfabeto gakotsa taldetik kanpo gelditzen da, tristeki.



marko spatola

Goiztirian, eguzkiak lehen izpiak luzatzen ditu mendi kaskora. Ipuinen kutxak dirdirutzen du. Sekula baino ederrago eta hurbilago da. Aztiak eta Anak begiztatzen dute isilean, azken patarra igatera abiatu aitzin. Beren puskak biltzen hasten dira eta zer ikusten dute? Oñoñak! Laminek utzi **oñoña** meta!

Zer gisakoak diren laminak! Oñoñak sakeletan sartzekotan direlarik, batek begia kliskatzen du eta gakotsen taldean sartzen da.



marko spatola

Orduan, Ana aztiaren bizkarrera igaten da, eta biak airatzen dira azken bidaiaren egitera. Anak ipuinen kutxa begipean atxikitzen du. Gakots guziak bizkarrean duen oihalean bildu ditu; alfabetoa ahal duen bezala oihalari lotzen zaio, erortzeko beldurrez!

Aztia, hegal xaflaka ari da igateko, baina bizkarrean duen zamarengatik zailtasun handiak ditu. Beharrik, **haize** goxo bat sentitzen du bere hegalen azpitik ufaka. Haizeak lagundurik, mendi kaskora hurbiltzen ari dira.

Ipuinen kutxaren aitzinean pausatzen dira. Ana poliki jausten da. Oihala zabaltzen du, eta xaramela jotzen hasten delarik, gakots guziak lerro-lerro abiatzen dira ipuinen kutxara buruz.

Bat sartzen da kutxaren sarrailan, eta beste bat, eta oraino beste bat, eta banaka denak doaz barnera. Orduan, kutxa zabaltzen hasten da; aire misteriotsu batek xaramela eta aztia xurgatzen ditu. Alfabetoak, lorietan, jauzi egiten du kutxaren barnera.

- Agur, Ana!! Ipuin liburuak lagunak dituzu orain!! –dio aztiak goxoki.
- Milesker, aztia! Orain badakit irakurtzen eta... Baina zer da zakutto hori?





Anak eskuetan hartzen du eta doi-doia irekitzen du; hango ipuinetatik, txapela, otsoa, erratza, printzesa, trena, krokodiloa... eskapatzen dira, eta saltoka, Ana inguratzen dute.

– Hor gara gu ere! –oihukatzen dute alaiki.

Orduan Anak eta gakots guziek erronda bat egiten dute eta dantzan eta kantuz hasten dira.

Neskatoa bozkariatzen da, ez baita sekula gehiago aspertuko; gakotsei esker, nahi dituen ipuin guziak irakurtzen ahalko ditu.

Ana neskatxa eta aztia,  
leihotik airatu dira

gorderik dauden gakotsen xerka  
zeruan itzul (e)ta bira

ipuinen kutxa irekitzea  
da bi lagunen desira

irakurtzeko nahi bezainbat  
istorio (e)ta kondaira

Oihan barneko ilunpearen  
zaindari da basajauna

ez du nahi jalgi dadin kutxatik  
ipuinen argitasuna

tranpa, oztopo, Tartaro eta  
herensuge adarduna

denak gaindituz garaile dira  
Ana (e)ta azti laguna







Lapurdikoko bizkondeen karrika - 64480 Uztaritze

Tel. 33 (0) 5 59 93 24 80  
info@ikas.eus - www.ikas.eus



Hizkuntza gain  
begiratzailea



EUSKALTZAINDIA